



Ramiro Arrue

Donibane Lohizuneko
Bilduma

Colección de la villa
de San Juan de Luz

RAMIRO ARRUE

Colección de la villa de San Juan de Luz

El Museo de Bellas Artes de Álava continuando con la línea de potenciar las exposiciones temporales iniciada desde su reforma y reapertura en abril de 2001, presenta en esta ocasión una importante muestra dedicada al artista RAMIRO ARRUE (Bilbao, 1892 - San Juan de Luz, Francia, 1971). Esta exposición reúne un número aproximado de 40 obras, la mayoría óleos sobre lienzo, procedentes de la colección de San Juan de



Las Tres Coronas (?), luz de color malva
Óleo sobre cartón
50,4 x 61 cm

Luz, en el País Vasco-Francés, lugar donde el pintor residió durante gran parte de su vida. En la exposición se incluye así mismo la obra de Ramiro Arrue *Bodegón delante de La Rhune* adquirida recientemente por el Museo de Bellas Artes de Álava para sus fondos.

Ramiro es el más joven de los cuatro hermanos Arrue, Alberto, José y Ricardo, dedicados a la actividad artística. Desde muy temprano se inicia en la práctica del dibujo y la pintura, trasladándose en 1907, cuando contaba 15 años, a París, ciudad en la que se relaciona con otros artistas vascos como Durrio, Losada, Zuloaga, etc. Pronto alterna sus estancias en la capital francesa, donde residen algunos miembros de su familia, con largas temporadas estivales en el País Vasco-Francés, y más concretamente en Ciboure, frente a San Juan de Luz.

RAMIRO ARRUE

Donibane Lohizuneko bilduma



Paisaje vasco
Vista de Bidarray desde los picos de Iparla
Óleo sobre lienzo
60 x 73 cm

dumakoak, toki horretan bizi izan baitzen artista bizitzako urte luzetan. Erakusketan, era berean, Ramiro Arrueren *Natura hila Larunen aurrean* izeneko obra dugu, Arabako Arte Ederren Museoak bere funtsetarako oraintsu eskuratutako obra.

Ramiro da Arrue anaien artean -Alberto, Jose, Ricardo eta Ramiro- gazteena, eta anaia guztiek jardun zuten arte munduan. Ramiro oso gaztetatik hasi zen marrazkia eta pintura egiten, eta 1907an, 15 urte zituela, Parisera joan zen. Han, beste euskal artista batzuekin izan zuen harremana, hala nola, Durrio, Losada, Zuloaga eta abar. Handik gutxira, Frantziako hiriburuko egonaldiak (bertan bizi ziren sendiko zenbait kide) udan Iparraldean zehatzago esanda, Ziburun, Donibane Lohizuneren aurrean- egingo

Arabako Arte Ederren Museoak, 2001eko apirilko birmoldaketarekin eta berrirekierarekin hasitako aldi baterako erakusketak bultzatzeko bide hari jarraituz, oraingo honetan RAMIRO ARRUE (Bilbo, 1892 - Donibane Lohizune, Frantzia, 1971) artistari buruzko erakusketa aurkezten du. Erakusketa honek, gutxi gorabehera, 40 bat margolan biltzen ditu, horietako gehienak mihise gaineko olio-pinturak, eta denak Donibane Lohizuneko (Iparraldea) bil-



Barquera de Pasajes
Óleo sobre contrachapado
60 x 43 cm

A partir de 1910 empieza a exhibir sus obras en distintas exposiciones colectivas e individuales tanto en Francia como en España, algunas de ellas, a través de la Asociación de Artistas Vascos, de la que fue miembro fundador, ocupando el puesto de secretario en 1919. Años más tarde, mostró su obra en Londres en distintas ocasiones y visitó posteriormente Sudamérica con su hermano José, realizando exposiciones en Buenos Aires, Montevideo, Rosario...

En 1929 fija su residencia en San Juan de Luz y en esta ciudad residirá hasta su muerte. A lo largo de su carrera artística recibió distintos premios y reconocimientos como la Medalla de Oro en la Exposición Internacional de las Artes Decorativas de París en 1925 o el Primer Premio del Paisaje Vasco en San Sebastián en 1965.

La pintura de Ramiro de Arrue se centra principalmente en el paisaje vasco. Muchos de sus lienzos recrean la luz y la atmósfera de los montes y costas a uno y otro lado de los Pirineos. El artista toma apuntes del natural en tablas de pequeño formato que luego traslada a la tela en su estudio. Estos paisajes idílicos, en los que se obvia la presencia de la huella industrial, aparecen en ocasiones poblados por tipos populares, campesinos o marineros, convertidos por Arrue en prototipos del carácter del pueblo vasco. Otro tema recurrente en su obra alude al folclore y las danzas autóctonas, mostrando los aspectos más lúdicos de la sociedad vasca.



Pastoral de Roland, actor en el papel de la Princesa Floripe
Óleo sobre contrachapado
41 x 33 cm

dituen egonaldiekin txandakatu-ko ditu.

1910etik aurrera zenbait talde-erakusketatan eta bakarkakoetan aurkeztu zituen obrak, Frantzia zein Espainian, eta haietako batzuk Euskal Artisten Elkartearen bidez egin zituen, elkarte horren kide sortzailea izan ondoren, idazkaria izan baitzen 1919an. Urte batzuk beranduago, Londresen erakutsi zuen bere obra zenbaitean, eta geroago Hegoamerika bisitatu zuen, Jose anaiarekin. Han, Buenos Airesen, Montevideon, Rosarioan... egin zituen erakusketak.

1929an Donibane Lohizun-en ezarri zuen bizitokia, eta hiri horretan bizi izan zen hil arte.

Haren karrera artistikoan zehar, sari eta errekonozimendu ugari jaso zuen, adibidez, Pariseko Dekorazio Arteen Nazioarteko Erakusketako Urrezko Domina, 1925ean, edo Donostiako Euskal Paisaiaren lehenengo saria, 1965ean.

Ramiro Arrueren margoek batez ere euskal paisaia dute oinarri. Haren mihiseetako askok Pirinioen alde batera eta bestera dauden mendi eta itsasertzaren argia eta atmosfera biltzen dute. Artistak naturari buruzko apunteak hartzen zituen neurri txikiko tauletan, eta gero horiek mihisera eramaten zituen estudioan. Paisaia idiliko horiek, industriaren aztarna apropos saihesten dutenak, herriko jendez, baserritarrez edo arrantzaleez, bete daude, eta Arruek Euskal Herriaren izaeraren eredutzat hartzen ditu. Haren obran etengabe agertzen diren beste gai batzuk folklorea eta bertoko dantzak dira, horrela, euskal gizartearen ezaugarri ludikoenak erakusten dituela.



La ciudad gris (Cirauqui, Navarra)
Óleo sobre contrachapado
38 x 45,8 cm

Conocedor de las vanguardias artísticas imperantes en su momento, como pueden ser el cubismo y el surrealismo, se aprecia en su obra un cierto gusto por la geometrización de las formas. Sus composiciones de gran armonía, son el resultado de la simplificación de las líneas y planos, y del empleo de un color uniforme a base de tonalidades verdes muy luminosas que crean atmósferas limpias y equilibradas.

Además de su dedicación a la pintura, aborda otras disciplinas artísticas como el esmalte, la ilustración y la creación de escenografías. Realizó numerosas ilustraciones para carteles y publicaciones como *Mai la Basquaise* de André Geiger o *La Mariage Basque* de Francis Jammes. Así mismo en 1934 diseñó la escenografía y el vestuario de la obra *Perkain*, drama lírico en ballet, representado en el Teatro de la Ópera de París. Colaboró también en la instalación y decoración de la sección vasca del Pabellón Español de la Exposición Universal de París de 1937.

Tras la muerte del artista, se celebraron en Francia dos importantes exposiciones individuales en los años 1991, en el Museo Vasco de Bayona, y 1997, en el Museo Nacional del Castillo de Pau. La muestra que ahora se presenta en el Museo de Bellas Artes de Álava, permite acercar al público de nuestra ciudad la obra de Ramiro Arrue, un artista vasco, que por haber desarrollado la mayor parte de su carrera en Francia, ha tenido una menor presencia hasta la fecha, tanto en el coleccionismo como en las actividades expositivas de este país.



Castillo de Pedraza
Óleo sobre contrachapado
50 x 62 cm

Bere garaian indarrean zeuden abangoardia artistikoak ezagutzen zituenez, -kubismoa eta surrealismoa, adibidez-, formen geometrizazioarekiko nolabaiteko zaletasuna nabarmentzen da haren obran. Konposizioak, harmonia handikoak bestalde, lerroen eta planoen sinplifikazioaren ondorio dira, eta kolore uniformearen erabiltzearen ondorio, eta hori berdearen tonalitate argiei esker lortzen du, atmosfera garbi eta orekatuak sortzen baititu.

Margoaz gain, beste diziplina artistiko batzuk ere jorratu zituen, hala nola, esmaltea, ilustrazioa eta eszenografiak sortzea. Ilustrazio ugari egin zituen, bai karteletarako bai argitalpenetarako, adibidez, André Geiger-en *Mai la Basquaise*-rako edo Francis Jammes-en *La Mariage Basque*-rako. Era berean, 1934an, *Perkain* obraren eszenografia eta jantziak diseinatu zituen. Obra hori balet gisa antolatutako drama lirikoa zen, eta Pariseko Operaren Antzokian eman zuten. Parte hartu zuen, baita ere, 1937an egin zen Pariseko Erakusketa Unibertsalean, Espainiaren Pabilioiko euskal atalaren muntaian eta apainketan.

Artista hil ondoren, Frantzia bakarkako bi erakusketa garrantzitsu egin ziren: 1991n, Baionako Euskal Museoan, eta, 1997an, Pau-ko Gazteluaren Museo Nazionalean. Arabako Arte Ederren Museoan oraingoan erakusgai dagoen erakusketak aukera ematen digu gure hiriko jendearengana hurbiltzeko Ramiro Arrueren obra, hau da, euskal artista baten obra, zati handiena Frantzia egindakoa izan zelako, gure artean oso ezaguna ez dena, ez bildumetan ezta herri honetan egin diren erakusketetan ere.



Arabako Arte Eder Museoa
Museo de Bellas Artes de Álava

25-02-2003 – 6-04-2003

ORDUTEGIA

Asteartetik – Ostiralera: 10:00-14:00 eta 16:00-18.30
Larunbatetan: 10:00-14:00 eta 17:00-20:00
Igande eta jai egunetan: 11:00-14:00 eta 17:00-20:00

HORARIO

Martes a viernes: 10:00-14:00 y 16:00-18.30
Sábados: 10:00-14:00 y 17:00-20:00
Domingos y festivos: 11:00-14:00 y 17:00-20:00



EL CORREO



**Arabako
Foru Aldundia**
Kultura Saila



**Diputación
Foral de Alava**
Departamento de Cultura